

ADUNA

- UEMA-ko kide berria

ANDOAIN

- Herriko bertsolariak finalerdietara
- Ines Arranz Gipuzkoako Miss hautagaia

ASTEASU

- Xanti Gurrutxaga zinegotziak kargua utzi du

BILLABONA

- Txomin Perurenari omenaldia

ZIZURKIL


- Zentroko maizter berriak

ELKARRIZKETA

- Laurentzi Odriozola

KULTURA

- Martin Ugalderi omenaldia



Zorionak Martin!

1997ko azaroaren 14a. 68. Zenbakia. 150 pezeta.

fiurri

Beterri-aitzondoko Aldizkaria



JOKOA EZ DA
ERRENTA

EUSKAL MUSIKA

Berria, gaurkotuena,
betirako.

23 disko konpaktu
eta liburuxka bat
abestien hitzekin.




Irailaren 13tik aurrera
asteazken eta larunbatetan

Egunkaria + 550 pta.

1. AURKIBIDEA.
AIURRITARRAK
Jon Unanue
"Kontzientzia".
2. GALDEZKA.
Eta zuri, zer iruditu zaizkizu herrian
eginiko asfaltatze lanak?
3. ADUNA.
Adunako Udala UEMAn sartuko da hilaren 30ean.
- 4-5-6. ANDOAIN.
Martin Ugalde literatur sariak.
Andoaingo bertsolariak finalerdietara.
Ines Arranz Miss Gipuzkoa 98-rako hautagaia.
7. ASTEASU.
Xanti Gurrutxaga zinegotziak kargua utzi du.
- 8-9. BILLABONA.
Amasako jaiak.
Txomin Perurenari omenaldia.
10. ZIZURKIL.
Tere Patrocinio Zentroko maizter herria.
11. ENPRESA.
«Amets» bideokluba.
- 12-13. ERREPORTAIA.
Jokoa ez da errenta.
- 14-15. ELKARRIZKETA.
Laurentzi Odriozola Venezuelako kazetaria
Martin Ugalderi buruz.
- 16-17. KULTURA.
Martin Ugalderi ohorezko omenaldia.
18. ERRETRATU ZAHARRA
19. ZER BERRI/LEHIAKETA
20. AGENDA

KONTZIENTZIA



JON UNANUE

Arrazoi asko ibili ditugu egunotan Martin Ugalderi omenaldia egiterakoan. Gaur bi azpimarratu nahi ditut berririo, eta bati buruz azalpena egin, ez baita berehalako batean barrundatzen den horietakoa. Lehenik, sarri ahoan darabilkigun bere obra, neurri batean herritarrentzat ezezaguna, askok txunditurik aitortu diguten legez. Obra horretan literatur lana dugu batetik, gaztelerez eta euskaraz egindakoa eta, bestetik, kazetari lanak eta saiakerak. Kopuruz oso handia da, txunditzekoa, kalitatez nere gogorako aparta, baina hori norberak egiazta edo gezurta dezakeen ondorioa da.

Obra oso horrek, gai eta alor ondo diferentetakoak izanik ere, baditu ezaugarri amankomun batzuk, eta horietako bat da, hain zuzen ere, kontzientzia sortzaile edo eragile izatea, kontzientzia eragilea bereziki euskaldunei dagokigunez, euskaldun izateko kontzientzia sortzailea hain zuzen ere.


Ez da, jakina, *bidegile* edo *aintzindari* deitu ohi ditugunetako bakarra, ezta lehenengoa ere, baina benetan bakana eta apartekoa da Martin Ugalde kontzientzia sortzaile horrek utzitako aztarna, aztarna baino gehiago zantzia. Hori ulertzeko lehenik eta behin gerra, gerraondoko eta 50eko hamarkadako bizimoduaren zirkunstantzietatik jabetu behar dugu, eta hortxe kokatu gerra giroko joan-etorrietan hazi den gazte bat, Venezuelako erabat txertatzen dena bertako bizimodu eta giroan, bertako hizkuntzan, kosta ahala kosta kazetari eta idazle ospetsu izateraino. Eta gauza guztiak bere alde zituenean Venezuelako gaztelerez bete-betean jardunez literatur eta kazetaritza obra bere gogora aberastu eta osatzeko, bazter batera egin zuen, Venezuelako *urreei* uko egin, eta barrubarruan itsatsita zeraman euskarari bere ahalegina zor ziola erabaki zuen. Sakrifizio hori idazleak, idaztea ogibide duenak baino ezin du berezko neurrian ulertu.

Orduantxe ekin zion Ugaldek geroztik utzi ez duen bide bati, *litzelek* obra bikaina lehenengo fruitu zuela: euskaldun gisa, euskal idazle gisa, herritar euskaltzale gisa bizitzeko kontzientzia behar bezala osatzeko lanari. Bere buruari eta euskaldun askori arrazoibidea erakutsiz jatorriarekin duin bizitzeko, inoren tranpatan erori gabe, jakin genezan nola eta zergatik izan euskaldun hain ingurugiro eta zirkunstantzia zailetan, nola egin aurrera sarri hain etorkizun iluna ikusi arren. Sakrifizioz bere kontzientzia osatzearrekin batera besteoi bere pentsakera zabal-zabalik eskaini digu, pentsakera ez ezik bere ekimena herri gizon gisa politikan eta kulturbi-deetan...


Haindainenokoa da kontzientzi horren indarra oraindik ere hor dirauela, egunero-egunero idazten, bera hainbeste asetzen duen ipuingintzan edota iritzi artikuluetan, oraindik ere onenak emateko dagoelakoan. Hor duzu zuk orain Ugalde ipuingilea, iritzi-emalea, kazetaria ezagutzeko parada. Ziur naiz irakurri ahala zuk ere antzemango dituzula kontzientzia horren arrastoak.

Argitaratzailea: Manuel Larramendi Kultur Bazkuna. **Egoitza orokorra:** Dr. Huizi kalea 15, 1-esk. 20140 ANDOAIN (Gipuzkoa) ☎ 30 07 32 Fax: 30 07 31 **Babesleak:** Aduna, Andoain, Asteasu, Billabona, Larrauli eta Zizurkilgo Udalak. **Zuzendaria:** Ainhoa Oiarzabal **Maketatzailea:** Eva Garcia **Erredakzioa:** Ainhoa Oiarzabal eta Ainhoa Aizarta **Argazkiak:** Manu Mujika, **Komikia:** Ramón Bernas **Publizitate arduraduna:** Fernanda Iruzu **Administratzaile-eragilea:** Xabier Irisarri. **Inprimategia:** Gertu Kop. E. (Zubillaga, Oñati). Lege-gordailua: SS-202/94 ISSN: 1354-0614 **Tirada:** 2.500 ale.

OHARRA: Bazkun argitaratzaileak ez du beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko inolako erantzukizunik.



**ETA ZURI ,
ZER IRUDITU ZAIZKIZU HERRIAN
EGIN DITUZTEN ASFALTATZE LANAK?**



JOXE IPINTZA
LANGILEA.

Zenbait lekutan atzeman dut errepidea hobetu egin dutela, baina baserri bideak ez dituzte ikutu; kalekoak bakarrik konpondu dituzte. Baserri bideak txukuntzea falta da, zulo handiak daude errepide horietan.

JAVIER CUESTA
LANGILEA.

Ikusi dut zuloak bakarrik ari direla konpontzen. Nire ustez guztia konpondu beharko lukete, ez zuloak estali soilik. Halere, hobekuntza nabaria da.



LALI BARRERAS
ETXEKOANDREA.

Ondo ari dira egiten lanak, oso azkar egin dituzte, gainera. Hobekuntza nabaritu dugu, orain, gainera, euria egiten duenean ez dira putzuak egiten.

ISABEL ARIAS
ETXEKOANDREA. ANDOAIN.

Gauza ona iruditu zait asfaltatze lanak egitea. Azkar egin dituzte lanak, eta ikusi dudana ongi egin dute.



JUAN ARROYO
JUBILATUA. ANDOAIN.

Oso gauza ona da errepideak hobetzea. Gaur egun azkar eta eroso egiten dituzte lanak, eta hori ona da herriarentzat.

ELISABETE SANGINO
IKASLEA. ANDOAIN.

Lehen baino hobeto daude orain errepideak, lehengo zuloak estali eta konpondu dituzte behintzat. Lanak azkar bukatu dituzte.



Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa fundazioa
fundación

ALFARO
JATETXEA

EGUNEROKO MENUA
Etxeberrieta auzunea
☎ 59 40 27 **ANDOAIN**

EUSKARAREKIKO KONPROMEZUA

- UEMA MANKOMUNITATEAN SARTUKO DA ADUNAKO UDALA
- AZAROAREN 24TIK 30ERA ASTE KULTURALA EGINGO DUTE



Herritarrak euskaraz alfabetatzeko klasean.

Udal Euskaldunen Mankomunitatean, UEMAn, sartuko da Adunako Udala hilaren 30ean. Mankomunitate honetan sartzeko zenbait baldintza bete behar dituzte udalek, eta horietako bat udalerrriaren %85a euskalduna izatea da, hots, euskaraz dakiena izatea. Beren funtzionamendua euskarazkoa izatea nahi duten udalek hartzen dute parte mankomunitate horretan, eta behin oinarrizko baldintzak beteta, piskanaka-piskanaka gehituz doaz beren helburuak. Beraz, udal zinegotziak euskaraz aritzeko prestatzen ari dira eta oraindik ere ari dira AEKako irakasle- laguntzaz Adunako Udalean. Ho-

rrera, udalak euskaraz funtzionatzea lortu nahi dute, eta ondorioz, herritarrak euskaraz bizitzera bultzatu. Udal zinegotzi eta langile guztiek badakite euskaraz aritzeko adina, eta hurrengo pausua udalean aztertzen dituzten txostenak eta agiriak euskaratzeko eta ulertzeko gai izatea dela adierazi digute.

Finean, UEMA mankomunitateak Adunako Udalak euskaraz funtzionatzeko duen konpromezua berrestu,

eta era berean, hori egi bihurtzeko behar duen laguntza guztia eskainiko dio. Izan ere, bertan biltzen diren udal guztiek arazo berberak dituzte euskaraz funtzionatzerako orduan eta beren esperientziak elkarturatzeko gune aproposa da mankomunitatea.

ABIAPUNTUA BESTERIK EZ

UEMA sartzeak, ordea, ez du dena eginda dagoenik esan nahi. Herria euskalduntzen jarraitzeko eman duten pausu bat besterik ez da, eta orain, hori horrela izan dadin saiatu beharko dute bai udalean bai herrian. Izan ere, euskaraz bizi ahal izateko lana egin behar da, euskararekiko konpromezua hartzeaz gain.

ASTE KULTURALA

(Ekintza guztiak udaletxe azpiko aretoan egingo dira)

AZAROAK 24, ASTELEHENA

20:15: Euskaraz ikasi eta hemen bizi diren hiru atzerritarrek beren esperientzien berri emango dute.

«Nolakoak gara euskaldunok?»
Bisnu Pryha (Sri Lanka)
Khadim Fall (Senegal)
Mia Rissanen (Finlandia)

AZAROAK 25, ASTEARTEA

18:00: Arrate Leundaren ipuin kontaketa

20:15: "Nepalen aurpegi ezkutua" izeneko ikusentzunezkoa
Amaia Elozegi eta Esther Mugerzaren eskutik

AZAROAK 26, ASTEAZKENA

20:15: Amaia Vazquezen hitzaldia:
«Sexualitatea: Belaunaldien arteko komunikazioa»

AZAROAK 27, OSTEGUNA

20:15: «Egokia al da komunikabideetan erabiltzen den euskera?»
Martxelo Otamendi
Laxaro Azkune
J. M. Otermin
Ainhoa Aiertzta (moderatzailea)

AZAROAK 28, OSTIRALA (HERRI OSTATUAN)

21:00: Barrikotea eta txiste kontaketa

AZAROAK 29, LARUNBATA (FRONTOIAN)



22:00: Bertso saioa: Euzkitze, Jon Sarasua, Peñagarikano eta Aitor Mendiluze. Gai jartzailea Joxe Mari Aranalde izango da.
Ondoren: ALAITZ eta MAIDER trikitilari bikotea

AZAROAK 30, IGANDEA

12:00: UEMAn sartzeko erabakia adosteko udalbatza
Ondoren: Herri bazkaria
16:00: Takolo, Pirrutex eta Porrotx pailazoak
Gauean: URRATS taldearekin dantzaldia

Ugalde ipuin eta erreportai sariak

Eskola mailan Andoaingo Udalak Martin Ugalderekin omenez antolatutako ipuin eta erreportai lehiaketako saridunak ezagutzera eman ziren urriaren 31an. Erreportai onenaren saria Amaia Lizaso Erkiziak, Igor Alejo Toledok eta Josu Merino Iradak irabazi zuten. Ipuin ataleko irabazleak Enara Otaegi eta Joseba Ormazabal Guerrero izan ziren.



Garikoitz Plazaola



BELARDIAN PILOTAK
ALA BEHIAK?

Belardiak behien erresuma txikiak zirenen ustea aspaldi baztertu banuen ere, Goiburun golf zelai bat eraiki nahi dutenaren berria atsekabez hartu dut.

Agian nire familia jatorriz auzo horretakoa izateak badu zerikusirik niregan sorturiko atsekabeen baina objektiboki begiratuta ere badira arrazoiak Golf Zelaia eraikitzearen alde ez egoteko. Horrela, inguruko zelairik oparoenak hartzeaz gain, ur xahuketek eta produktu kimikoen kalteak eragingo dituzte ingurugiroan.

Baina bereziki baserriaren etorkizunak kezkatzen nau. Izan ere, nekazaritzaren intentsifikazioak, ekoizpen gune handiek, Europar Batasunean sartzeak, errenta eskasek ... nekazaritzan eragindako gainbeherak baserri asko hustu ditu eta orain beste arrazoi bat gehiago batzen zaie guzti hauei: luraren okupazioa. Urtegiek, azpiegitura proiektuak, proiektu turistikoek, golf zelaiak ... lur izugarria behar dute eta horrek nekazaritzan aritzeko lurra kopuruz urritzea eta garestitzea dakar, mendeetan gure ingurunea zaindu duten baserriarren etorkizuna kinka larrian jarritz.

Aukeratzekotan, neuk behintzat nahiago dut belardian golf piloten lekuan behiak ikusten jarraitu.

Pagamendiko hilobiak

Pagamendiko hilerrian egindako 76 hilobiak nori emango dizkioten erabaki du jada zerbitzu batzordeak. Hilobia erosi duen herritar bakoitzak gutun bat jasoko du horren berri izateko eta dagokion ordainketa egiteko. Azken momentuan norbaitek hilobia erosteko interesik ez balu, soberan diren hilobiak erosi ahal izateko aukera zabalduko du berriro zerbitzu batzordeak.

XIXORI
BELARDENDA
DIETETIKA ZENTRUA
KONTSULTA NATURISTA

Ondarteta. 9 - ☎ 59 01 99 - 20140 ANDOAIN

UNAI
OINETAKOAK

Kale Nagusia, 12
BILLABONA
☎ 69 12 61

UME EIA
GAZTEENTZAKO
OINETAKOAK

BAILARAKO BERTSOLARIAK FINALERDIETARA

Mendiluze, Sorozabal eta Irazu finalerdian izango dira kantari

EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA ABENDUAREN 14AN IZANGO DA BAINA BERTARA IRITSI BAINO LEHEN, BERTSOLARIEK AZAROAREN 16AN, 23AN ETA 30AN EGINGO DIREN FINALERDIETAN PARTE HARTU BEHARKO DUTE.

LEHENENGO ZORTZIAK BAKARRIK IRITSIKO DIRA FINALERA. FINALERDIRAKO PASEA LORTU DUTENEN ARTEAN BETERRI-AIZ-TONDOKO AITOR MENDILUZE, JOKIN SOROZABAL ETA JESUS MARI IRAZU BERTSOLARIAK DITUGU.

Aitor Mendiluze



DUELA 13 URTE HASI ZEN LEHENENGO ALDIZ BERTSOTAN. ORAIN, BERTSOZALE ELKARTEKO KIDE GISA, BERTSO ESKOLETEZ ARDURATZEN DA, BESTEAK BESTE. ESKOLARTEKO TXAPELKETA UGARI IRABAZI DITU LIZARDI ETA XENPELAR SARIA BATZUK LORTZEAZ GAIN. 1995. URTEKO GIPUZKOAKO TXAPELDUNA ERE BADA.

Jokin Sorozabal



HOBBY GISA HASI ZEN BERTSOTAN DUELA HAMABI URTE. BERTSOTATIK BAKARRIK BIZI DENIK INOR EZ DAGOELA DIO, NAHIZ ETA BERAIEK ORDU ASKO HORRETAN EMAN.

Nola ikusi duzu zure burua finalaurdeneko saioan?

Nahiz eta ez nuen saio izugarria egin, pozik nago. Zerbait gehiago egin nezakeen baina ez nengoen oso konzentratuta, beraz, konforme nago egin nuen saioarekin.

"BERTSOTAN ONDO ARITZEA DA NIRE ASMOA, LORTUKO DUDAN POSTUA KONTUTAN HARTU GABE"

Finalerdian zein bertso abestu beharko dituzue?

Modalitate ezberdinetako zazpi bertso abestu beharko ditugu eta horietako bat gartzelari buruzkoa da.

Finalera iristeko esperantzarik ba al duzu?

Txapelketa nagusian parte hartzen dudan lehen aldia da eta oraindik ez dakit finalera iritsiko naizen, hala ere, ez dut horretan gehiegi pentsatu nahi. Bertsotan ondo aritzea da nire asmoa, lortuko dudana postua kontutan hartu gabe.

Zenbatgarren bertso txapelketa nagusia duzu aurtengoa?

Hirugarren bertso txapelketa nagusia dut. Oraindik finalerdirako pasea baino ez dut lortu, beraz, ez dakit finalera iritsiko naizen. Aurreko finalean saio nahikoa politak egin nituen, eta horregatik, beharbada, arratsaldeko saioan bertso txukunagoak egingo nituelako esperantza zuen jendeak.

Justua al da egun bateko txapelketan erabakitzea txapelduna?

Txapelketa horrela dago ezarrita eta ez zaio buelta gehiagorik eman behar. Inpartzialagoa izateko, beharbada, saio gehiagoko txapelketa baten ondoren aukeratu beharko litzateke txapelduna. Baina era horretan jendea aspertu egingo litzateke. Txapelketa horrelakoa da, zorteak ere zeresan handia du. Horregatik, egun horretan bertsotan gaizki aritzeak ez du bertsolaria txarra denik esan nahi, ezta gutxiagorik ere!

"TXAPELKETA EGUNEAN BERTSOTAN GAIZKI ARITZEAK EZ DU BERTSOLARIA TXARRA DENIK ESAN NAHI"

Eraginik ba al du txapelduna izan edota postu on bat egiteak?

Bai. Txapelketan postu on bat lortuz gero nabaria da hori denbora batean. Hurrengo urtean modan egoten zara, baina gerora, eragin hori galdu egiten da. Bertsolari ona zarela demostratu behar duzu, txapelketaren eragin hori ez baita betirako.

Argiako hiru kazetariak greba bertan behera utzi dute.

Greban zeuden J.J. Petrikorena eta Arantxa Erasun kazetari andoaindarrek protesta uztea erabaki dute. Grebaren arrazoiak Argia aldizkariaren administrazio kontseiluarekin izan dituzten desasotasunak izan dira. Administrazio kontseiluarekin elkarrizketarik lortu ez dutenez, azkenean, erabaki hau hartu dute. Grebalariek, administrazio kontseiluko kideen dimisioa eskatzeaz gain, kritika gogorak egin dizkiote Argiako zuzendaritza taldeari eta bere politikari.



**INES ARRANZ,
MISS GIPUZKOA
98-RAKO
HAUTAGAIA.**

- 21 URTE.
- ELBARRI SIKIKOEN HEZITZAILE IZATEKO IKASKETAK EGITEN ARI DA.
- LAGUNEKIN EGOTEA DU GUSTUKO.

gun gisa ikusten. Nire helburu nagusia nire ikasketekin jarraitzea da.

Zaila al da ikasketak eta desfileak batera aurrera eramatea?

Momentu batzuetan bai. Azterketak ditudanean eta desfileak edota argazki saioak egin behar ditudanean astuna da hori guztia egitea.

Zer esan dizute zure lagun eta familiakoek?

Curasok asko animatu naute eta hautagaietako bat nintzela jakin dudanetik, biharko lehiaketara gurasoak nirekin batera etortzea nahi dut. Lagunek ere asko animatu naute, nahiz eta adarra ere jotzen didaten.

Noiz aukeratuko dute Miss Gipuzkoa 98?

Bihar, azaroaren 15an. Zestoako Bai-nuetxean egingo den ekitaldian aldeztatik aukeratu gaituzten 15 neska izango gara titulu horretarako lehian. Miss Gipuzkoa hautatzeaz gain, lehen dama, bigarren dama eta "Miss simpatia" edota "Miss elegancia" delakoa hautatuko dituzte ere.

Urdiritasunik? Esperantzarik?

Ez nago urduri. Desfilatzera atera aurretik urduri jartzen naizen arren, orokorrean nahikoa lasai egoten naiz. Esperantza handirik ez dut, ordea. Egia esan lehiaketa hauek ez ditut asko atsegin.

Nolatan aurkeztu zara lehiaketara?

Duela lau urte modelo bezala desfileatzen ikasteko ikastaro bat egin nuen agentzia batean. Horren ondorioz, agentzia berak desfile, argazki saio edota lehiaketetan parte hartzerari animatu ninduten. Miss lehiaketa batera aurkeztzen naizen lehenengo aldia da.

Zein betebeharrak eskatzen dituzte parte hartu abal izateko?

1'65 cm. baino altuagoa izatea, 18 eta 25 urte bitarteko adina edukitzea eta nahikoa kultura maila altua eduki behar duzu. Kale arropa eta bainujantzia desfilatu behar da lehiaketan.

Lehiaketa aurretik prestakuntzarik izan al duzue?

Bai, lehiaketa aurreko egunetan desfileatzen erakutsi digute. Lehiaketan parte hartzeko prestaketa bat izan dugu, beraz.

Modelo izatea al da zure ametsa?

Ez. Herriko desfilean hasi nintzen horrelako gauzetan parte hartzen. Ondoren, beste desfile batzuetan hartu izan dut parte baina gustukoa dudalako. Ez dut nire burua modelo eza-

**3. adinekoen
astea**

San Juan Bautista zaharren egoitzan urteroko legez zaharren astea ospatzen ari dira egun hauetan. Aste batean zehar, toka txapelketa, bertsolariak, Areski gimnasioko partaideen emanaldia, «Hogar Extremeño» taldeko koru eta dantza taldearen emanaldia, txokolata eta gaztain jatea egingo dituzte, besteak beste. Horrezaz gain, egoitzako juntako kideen bazkaria egingo dute.

**M. Jose Sardón,
Euskadiko judo
txapelduna**

Urriari Bilbon egin zen Euskadiko judo txapelketako irabazlea dugu Maria Jose Sardón urnietarra. 72 kilotik gorako kategoriako Euskadiko txapelduna berria dugu Judo Club Andoain taldeko Maria Jose. Horrezaz gain, Erreterian eginko Iberoamerikako txapelketan hirugarren postua lortu zuen.

**Bizikletako biela
akatsdunak**

Shimano enpresak 1994 urtean bizikletarako eginko FC-CT90, FC-M290 eta FC-MC12 biela modeloak akatsak dituela jakinarazi du. Biela modelu horiek txirindulariei zauriak eta bizikletaren gaineko kontrola galtzea eragiten dute. Arrazoi horregatik, biela modelu horiek ordezkatzeko konprometzua hartu du enpresak. Horretarako, astelehen eta asteazken eta ostiraletan 900-351065 telefonora deitu beharko da. 12:00etatik 14:00etara. Informazio gehiagorako, Ambrosia Olabide Gizarte Zerbitzuen Egoitzara, Gizarte Ongizateko lantsailera joan edota 300746 telefonora deitu.

**EMBUTIDOS
ORMAKI
URDAITEGIA**

**TXERRIKIEN
BANATZAILE
ETA
EKOIZLEA**

ENPRESEN ZENTRUA

Ama Kandida z/g - 307. Moduloa - ☎ 592923

ANDOAIN

**Extrixi
Beltz**

taberna

Kaleberria, 9 ANDOAIN TEL. 59 35 49

MIRARI

ILEAPAINDEGIA

ELIZONDO PLAZA, 2
☎ 590162

ANDOAIN

*Soldaduskari
buruzko informazioa*

Hileko bigarren asteazkenetan KEM-MOC talde antimilitaristako kide bat Asteasuko Kultur Etxean izango da Asteasuko gazteei informazioa eskaintzeko. Kontzientzia eragotzenari buruz, intsumisioari buruz eta soldaduska prorrogei buruzko informazioa eskainiko du arratsaldeko 18etatik 20ak bitartean.


Erabaki hauek eta ondorengoak EA eta EAJ-PNV alderdien botuekin eta HBren abstentzioarekin onartu zituzten udalbatzarrean. Bakearen kulturaren alde eta soldaduska ez egiteak ekartzen dituen zigorren aurka hartutako erabakia da. Erabaki horien artean Asteasuko Udala herriko gazte intsumisioen aurka epaiketen lekuko izango dela, eta gainera, gastuak beregain hartuko dituela da aipagarriena. Era berean, udaleko lanpostuetan ez diete eskatuko gazteei soldaduska edo ordeko zerbitzu soziala egina edukitzea.

*El Salvadorreko
lagunak herrian*

Meangera eta Jokoaitique herrietako alkateak izan berri dira Asteasun. El Salvadorreko Segundo Montes komunitateko herriak dira biak, eta beraz, komunitateko lehendakaria ere etorri da alkateekin batera. Bisitaren helburua bi herri horietan egin nahi dituzten 60 etxebizitza berri egiteko duten proiektua aurkeztea eta dirulaguntzak jasotzea izan da. Horrezaz gain, Asteasu ezagutzeko eta zinegotzi nahiz alkatearekin egoteko parada izan zuten.



Pello Joxe Aranburu



ASTEASUKO ERRETOREA
ESKLABUEN TRATUAN

Asteasuko 1631ko erretoarez eta bere pasadizoaz bi hitz adieraziko ditut, euskaldunok esklabuena trafikatzailerak izan gara. La adierazteko. Alkizako Ambrosio Bengoetxeako eskultorearen emaztea Asteasuko Katalina Iturrieta izan zen, Pedro Iturrieta Asteasuko erretoarearen arreba, ezkontzako lekuko eta testamentuetako albazea ere izanik bera. Gari hartan, 1600 aldera, Asteasuko bi erretoarek eta 1594/1630 urteetako bi notarioek Iturrieta abizena zeramaten, ahaideak baitziren. Pedro Iturrieta 1610ean Madrilen bizi zen ikasketak egiten eta batzuetan lizentziatu eta besteetan doktoretzat hartua izan zen, herriko erretoare izendatu zutenean. Bazituen beste zenbait kargu ere.

Pedro Iturrieta herriko erretoarek bertako notario berriaren aurrean, tratu hauze egin zuen Usurbilgo Domingo Aractarekin, beltz baten salmentan. Asteasun, erretoarearen etxean gazte beltza zeukan salgai, "tenia en su poder y casa un mozo y negro, haviale adquirido mediante justos y buenos titulos, de edad de veynte y quatro años, poco o mas o menos, con una señal en el pescueço devajo de la oreja izquierda que parece sela hizieron con algun ferro caliente, de buena, o, mediana estatura". Erretoarek 600 errealetan saldu zion Domingori, berarentzat edo bere ondorengoentzat, honek ordainagiria sinatuz, aldi hartan, Alkizako Egurrola burdinolak urteko mila erreale ematen zituenean. Lehen, esklabuak, garondoan gizarte-garrangaz markaturik, merkataritzako salgaiak izan ziren, beste lekuetan bezala, gure artean, Asteasun ere. Ekintza hori legez guztiz onartuta zegokeen, nonbait, merkataritzako legeak hori agintzen zuten eta.

**XANTI GURRUTXAGA
ZINEGOTZIAK
KARGUA UTZI DU**

Xanti Gurrutxaga EAJ-PNVeko zinegotziak bere kargua utzi egin du. Arazo pertsonalak nahiz laboralak izan dira zinegotzi kargua uzteko arrazoiak. Xanti Gurrutxagak Aiurriri adierazi dionez, nahikoa nekaita zegoen eta bizi-modu lasaia goa bizi nahi du aurrerantzean.

MERTXE IRAZUSTA ZINEGOTZI BERRIA

Xanti Gurrutxaren postua Mertxe Irazustak beteko du, duela bi urte independentek, EA eta EAJ-PNV alderdiek udal hauteskundeetan bateratuta aurkeztu zuten zerrendan ageri den emakumeak. Era berean, Gurrutxagak kultura eta hirigintza batzordean zuten ardura banatu egingo dituzte, hirigintzako ardura Inaki Amenabar alkateak hartuko du (lehen ere ardura hori betetzen zuen Xantirekin batera) eta kultura eta hezkuntza berriz, Mertxe Irazustak hartuko du. Alkateak adierazi digunez, Xanti-

ren lana goraiatzeaz gain, udalean lanean jardungo duen taldeak EA eta EAJ-PNV izaten jarraituko du, hau da, bi alderdiek batera jarraituko dute udalean.

Bestalde J. L. Zubeldia eta A. Aizpurua sartu dira udalera J.R. Usabiaga eta M. Arteagaren ordezkari gisa honetan. Aizpuruak festa eta kirol batzordearen ardura hartuko du.

HBREN IRITZIA ETA EA-EAJ-REN IRITZIA

Asteasuko Herri Batasunaren arabera, EAJ-PNVeko zinegotziak presoengandik inguruan (presoak Euskal Herriratzearen aldeko manifestazioetan parte hartu izan du) zuten jarrera ez zuten gustuko EAKoek. "Herriko EAKoek PNVeko buruei abisua eman zien HBri elkartzen ari zela", adierazi dute. Beraz, zinegotziaren dimisioa bere alderditi-jasan dituen presoen ondorio dela diote.

Asteasuko EA eta EAJ-k berriz, udal zinegotziren artean aldaketa gehiago izan direla esan digute, eta oraingo aldaketa hau "aldaketa normal bat besterik ez dela izan" jakin arazi digute. Beraien arteko langiroa ona dela gaineratu dute.

Gervasio Agirre
omentzeko
ekintza gehiago

Urriaren lehenean bete zituen 10 urte gartzelan Gervasio Agirre preso billabonatarak. Hori dela eta, ekintza ugari egin zituen urriaren hasieran Amnistiaren Aldeko Batzordeak, eta hilaren amaieran ere, izan zen ekitaldirik. Hala nola, Mikel Markez abeslariak lagundurik omenaldia egin zieten Agirre presoari eta bere senitartekoei, eta ondoren, manifestazioa burutu zuten. *Euskal Herria: borroka baten kondaira* lelopean, Txillardegik eta 18 urte gartzelan igaro dituen Joxe Miguel Azurmendi preso ohiak hitzaldia eskaini zuten.

Behar Zana
txapelaldun

Hilaren lehenean Billabonan jokatu zuten Gipuzkoa mailako errebot txapelketaren finalean. Billabonako pilotariak 13-0 irabazi zuten. Baina horrek ez du esan nahi partidu ona izan zenik. Billabonakoek ongi jokatu arren, Zubietakoek, ez zuten ohi bezain ongi jokatu.

Bestalde, hilaren 2an Zubietan jokatu zuten Enrique Abrilen omenezko txapelketaren garaile Baionako taldea izan zen. Ustaritzeko taldearen aurkako partidua 13-8 irabazi zuen.

Eguberrietako
saskia zozketan

Urteroko legez Eguberrietan jan eta edan ohi diren elikagaiez bereriko saskia zozketatuko du Behar Zana elkarteak. Abenduaren 18an egingo dute saski handiaren zozketa, Kale Berniko erakuslehoian ikusgai dagoena, baina abenduaren 17an eta 19an ere beste bi zozketa egingo dituzte; bi saski txiki zozketatuko dituzte. Zozketa-txartel bakoitzak 200 pezeta balio du eta herriko taberna eta okindegietan daude salgai aipaturiko txartelak.

AMASAKO JAIAK

ASTEARTEAN, SAN MARTIN EGUNEAN, HASI ZIREN AMASAKO JAIAK. URTEROKO LEGEZ, GIRO EZIN HOBEA IZAN DA EGUNOTAN BERTAN. ORAINDIK GELDITZEN DIRA JAI-EGUN BATZUK DISFRUTATZEKO, HONA HEMEN EGITARAUA.

Azaroak 14, ostirala:

- 15:00: TAKOLO, PIRRUTX eta PORROTX pailazoak.
Ondoren Txokolata-da.
- 20:00: AMASAKO VI. BAKAILU LEHIAKETA. Ondoren bakailua eta sagardoa doan eskainiko dituzte.
- 23:00: Dantzaldia AKELARRRE taldearekin.

Azaroak 15, larunbata:

- 11:00: KROSA 15 urtetik beherakoentzat.
- 14:00: Herri bazkaria.
- 22:30: GUK taldearen emanaldia.
Ondoren eta goizaldera arte IZOTZ taldearekin dantzaldia.

Azaroak 16, igandea:

- 11:30: ESKUZKO VI. SAN MARTIN txapelketaren finala gazte eta gaztetxo mailan.
Ondoren Asto lasterketa.
- 15:00: Oinkari dantza taldearen emanaldia.
Ondoren Elkarteen arteko soka-tira txapelketa. Elkarteak: Uxo Toki, Behar Zana, Irrintzi eta Amasako gazteak.
- 00:00: Erromeria INTXOR HAUNDIRAINO eta VIII. INTXORRAREN aldaketa.

Azaroak 23, igandea:

- 11:00: Amasako V. MENDIATLOIA.



CENTRO OPTICO

OPTIKO - OPTOMETRISTAK

URRIAN 60 URTE
GORAKOENTZAT ESKAINTZA:
ARMAZOIA +KRISTALAK =
8.500 PTA.

Kale nagusia 9 - 20140 ANDOAIN
☎ 59 18 17



AHOLKULARITZA
ARTEZKARITZA

IRAOLA

ENPRESEN AHOLKULARITZA:
FISKALA, DIRUKONTUENA,
JURIDIKOA, LABORALA,
ASEGURU OROKORRAK

Nagusia, 37
Tlf. 69 27 63
Fax 69 27 74
20150 BILLABONA

TXOMIN PERURENARI OMENALDIA

Irrintzi elkarteak antolatuta txirrindularitzari buruzko ihardunaldietan omendu zuten

"TXOMIN BEZALAKO GIZONIK ETA PERURENA BEZALAKO TXIRRINDULARIRIK EZ DA EGUNERO JAIOTZEN", HORI IZAN ZEN TXOMIN OMENTZERA HURBILDU ZIREN GUZTIEK ZIOTENA. HORI DELA ETA, OMENALDI PAREGABEA EGIN ZIOTEN HILAREN 7AN BILLABONAN. ETBK PERURENAREN TXIRRINDULARITZA ETAPA AZALTZEKO ESKAINITAKO BIDEOAZ GAIN, GARAI HARTAN GERTATURIKO ANEKDOTA ETA KONTU ZAHAR UGARI KONTATU ZUTEN PERURENA ETA BERE TALDEKIDE (KAS) IZAN ZIREN LINARES ETA GRANDEK. PERU, GIZONA, TXIRRINDULARIA ETA EUSKADI TALDEKO ZUZENDARIA IZAN ZITUZTEN HIZPIDE GONBIDATUEK.

Defini ezazu zure burua pertsona eta txirrindulari gisa.

Irrintzi elkarteek egin duten aldizkarian ia santua naizela diote, baina hainbesterako ez naiz izango: Jatorra bai, baina nahi dudanean bihurria ere izan naiteke. Txirrindulari moduan nahikoa poliki moldatu naiz. Hori bai, nuen guztia ematen nuen eta hori izan da niretzako gauzarik garrantzitsuenena.

Inoiz pentsatu al zenuen txirrindularia izango zinenik?

Bai, eta asko pentsatu ere. Tabernatik eta etxetik irteko asmotan hasi nintzen txirrinduan. Lagun batzuen laguntzarekin hasi nintzen hara eta hona joan eta las-

terketetan parte hartzen. Nire lagunei esker hasi nintzen bizikletan ibiltzen.

Beti irabaztea gustatzen omen zitzaizun.

Gazte gaztetatik edozein jokuetan irabaztea gustatzen zitzaidan, eta beharbada, horregatik izaten nuen karreretan irabaztea xede.

Eguno eta zure garaiko txirrindularitza konparatuz, zer falta zen zure garaian?

Eguno txirrindulari profesionalak duten kontrola, jarraipena eta zainketa ez zen gure garaian izaten. Horrezaz gain, soldata ere handiagoa dute. Beharbada, askok uste dutenaren kontra, nire garaian jarraitzaile ugari izaten zen lasterketetan, profesional nahiz afizionatu mailetan, egun baino gehiago agian.

Zein da Euskadi taldearen filosofia?

Euskadi taldeak afizionatu mailako txirrindulariak profesionaletara pasatzeko asmotan egiten du lan. Horregatik, garrantzitsua da lan horretan jarraitzea.

Zenbat urtez izan zara Euskadi taldeko zuzendari? Orain zein lan burutuko duzu Euskadi-Euskaltel taldean?

Lau urtetan Euskadiko taldeko zuzendari

lanak burutu ditut. Orain junta berri bat ezarri da eta horrek zuzendari berri bat izendatu du. Nire lana orain afizionatu mailako txirrindularien segimendua egitea eta taldearentzat dirua biltzea izango da. Euskadi taldeak 7.000 bazkide izan ditu orain arte, baina Euskaltel taldean sartu eta aurrekontua osatuko duelakoan bazkide kopurua jaitsi egin da, nahiz eta Euskaltel ez duen ekipoaren aurrekontu osoa esaltzen. Katalunia eta Andaluzia aldean Euskadi bezalako talde profesionala sortzeko asmotan ibili dira, baina oso zaila dela ikusi eta ezin izan dute aurrera segi.

Nolako da euskal afizioa?

Euskal afizioa munduko onena da. Neutrala da oso, etxeokak nahiz atzerritarrak animatzen ditu, beste lekutan ez da horrelakorik gertatzen. Omenaldiari dagokionez harro sentitzen naiz nitaz gogoratu eta omenaldia egiteko Irrintzi elkarteek burutu duten lan guztiagatik.


TXIRRINDULARITZAKO ENTRENAMENDUAK

Irrintzi txirrindularitza elkarteak denboraldi hasierako entrenamenduak hastera doazela jakinarazi nahi du. Gauzak horrela, txirrinduan hasi nahi duten 10 urteko gorako haurrek Billabonako Irrintzi elkartearen eman behar dute izena, edota bihar, azaroak 15an, Arratzaingo Fleming eskolan 10:00etan egingo den entrenamendura joan daitezke.



Ageltseritza
USABIAGA

Leku - Ona Etxea, 2 - Iharza auzoa
Tel. 69 35 60 - 69 34 35
20150 ZIZURKIL (Gipuzkoa)

 **ALOTZ**
IZOZKINAK

Kaleberria, 9 - % 59 07 06
ANDOAIN

Loitzo
Etxeko Osagaiak

LANPARAK ALTZARIAK
KOLTZOIAK OPARIAK

Errota kalea, - 3 69 21 35 **BILLABONA**

ZIZURKIL

Kanpaldia JI Bko mahaikideen alde.

Demokrazia Euskal Herriarentzat lelopean asteburuko kanpaldia egin zuten Joxe Arregi plazan Zizurkilgo Ezker Abertzaleko kideek. Kanpaldian ego-teaz gain, eztabaidak, tailerrak nahiz manifestazioak egin zituzten asteburuan. Herri Batasuneko Mahai Nazionalaren aurkako epaiketa salatzeke kanpaldiak herriko gaitiaz hitz egiteko balio izan zien.

Kross herrikoia hilaren 29an

Azaroaren 29an, larunbatean, kross herrikoia egingo da Zizurkilen Kostata gazte asanbladak antolatuta. Gaueko 11etan hasiko da krossa, eta bi maila ezberdinetan banatuko dituzte korrikalariak: 14 urtez gorakoak talde batean eta 14 urtez beherakoak beste-an. Guztira 7'5 km. eta 2'5 km. korritu beharko dituzte hurrenez hurren. Lehenengo postuetan ailegatzen diren neska-mutilek sariak jasoko dituzte. Halere, lehenengo 150 partaideen artean heltzen direnek kamiseta bana jasoko dute. Izen-ematea egun berean egin behar da gaueko 10etatik aurrera eta doan izango da.



Aloña Ipintza

KULTUR EKINTZAK

Leioan, azken bost urte hauetan ikasketak burutzen ari naizen herrian, duela 18 urtetik artisautza erakusketa ospatzen da azaroan. Aurten ere ospatzekoa dela jakinarazi digute. Honen zer pentsatua eman dit. Nire herrian, Zizurkilen, ez dut ez aukera gehiegi izaten honelako zerbaiteko. Kultur ekintza oso gutxi egiten da.

Geurea herri txikia izan arren, Gaztetxea, gazte asanblada eta udal-etxean kultur saila ditugu, argi dago gaitasuna duela beste edozein herri bezala ekintza hauek burutu ahal izateko, bai gazteei, bai eta zaharrei egokituak (kontzertuak, antzerki saioak, erakusketak...). Beharbada zaila izango da Durangoko azoka edo Tolosako abesbatzen lehiaketak adina arrakasta lortzea, baina hau ez da ospakizun hauen helburua izan behar inola ere.

Kontutan eduki beharrekoa dena da Euskal Herria kulturalki oso aberatsa dela, baina gauza asko eta asko ezezagunak dira herritarrentzat, ez historia aldetik bakarrik, gainera. Beticanik euskaraz egin izan den lan orok (liburuak, antzerki-lanak, filmeak...) zailtasun gehiago eduki du gizartera iristeko gaztelaniaz eginikoak baino. Beraz, ekintza hauek herritarrengana, bai beraien aintzinako historiaren zati bat, bai eta egungoari buruzko berriak iristarazteko bide bezala erabili behar dira.

Ezin jarriko dugu bapatean 2. Guggenheima Zizurkilen, maila apalago batean aurrera egiten saiatu beharko gara!

TERE PATROCINIO ZENTROKO MAIZTER BERRIA

Hilaren hasieran hartu du Tere Patrociniok Zentro jatetxe eta tabernaren ardura. Bost urterako izango dugu bertan, okerrik ez bada behintzat. Frantzian bizi izan da duela gutxi arte, eta orain, hemengo ohituretara egokitu nahi du: "Hemengo sukaldaritza egiteko bertako sudaldari bat kontratatu nahi dut. Izan ere, euskal sukaldaritza ongi ezagutzen duenak egingo du jendearen gustuko lana". Hain zuzen, nahiz eta Terek Frantzian jatetxe batean lan egin, hemengo jateko ohiturak desberdinak dira.

GAZTEENTZAKO ESKAINTZA BEREZIA

Eguneko menua eta karta eskaintzeaz gain, otartekoak, pintxoak eta gazteentzako plater konbinatuak eskainiko dituzte Zentroan. Bestalde, era guztietako ospakizunak egiteko aukera ere izango da jatetxean.

EGUNERO IREKITA

Egunero irekiko dute Zentroa, goizeko 9etatik gaueko 23etara. Gainera, ez dute astean behin ere itxiko.

Ilusioz eta gogo handiz hartu du Terek bere eginbeharra, eta orain, behin sukaldaria kontratatuta, lanari ekingo diote gogotik: "Nahikoa egoera txarrean dago egun Zentroa, guk, orain, egoera horri buelta eman behar diogu".



Zentroko malzter eta zerbitzari berriak.

**AMETS BIDEOKLUBEKO ISIDRO SANABRIA,
BIDEO ETA DISKA SALTZAILEA**

**DUELA URTE TER-
DI IREKI ZUEN ISI-
DRO SANABRIAK
AMETS BIDEOKLU-
BA. BIDEOKLUBE-
KO BEZERO ZENE-
TIK BERE AMETSA
BERE BIDEOKLUBA
IREKITZEA IZAN
ZEN, IZAN ERE, BI-
LLABONAN HORRE-
LAKO DENDARIK EZ
ZEN ETA PELIKU-
LAK ALOKATU
AHAL IZATEKO
BESTE HERRIETARA JOAN
BEHAR IZATEN ZUEN. BERE
AMETSA BETE ZELA ETA BI-
DEOKLUBARI «AMETS» IZE-
NA JARTZEA BURURATU
ZITZAION ISIDRORI.**

*Zein zerbitzu eskaintzen dituzu zure bideo-
klubean?*

Pelikulak alokatu, CD-ak elkartrukatu, eta telebistak, bideoak, musika aparailuak, kotxeko iratiak eta horrelakoak konpontzen ditut. Pelikulak egun baterako alokatzen dira, eta asteburuetan, larunbatetik astelehenera bitartean alokatzea posible da. CD-ak bi egunerako alokatzen dira. Pelikula alokatzea 400 pezeta kostatzen da, CD-a berriz, 300 pezeta. Hori bai, bideoklubekeo bazkideek ez dute ezer ordaindu behar bazkide egiteagatik. NA zenbakia erakutsi eta fitxa bat ireki ondoren, bezeroak nahi duten pelikula edota CD-a alokatzeko eskubidea du.

- Zein pelikula mota alokatzen da gehien?
Akziozko pelikulak, pelikula amerikarrak eta modan dauden aktoreenak



Isidro Sanabria bere txokoan.

gehienbat. Aktorearen izenak eragin handia du, izan ere, jendeak pelikula jakin batzuk eskatzen ditu. Hala ere, badira zein pelikula hartu jakin gabe, aholkua eskatzen dutenak. Nik pelikula espainiarrik, Euskal Herrian egindakoak edota pelikula independientea gisa ezagutzen diren pelikulak alokatzea aholkatzen diet. Askok uste dutenaren aurka, zinema espainiarrean pelikula oso onak egiten dira. Euskarazko pelikulen eskaria egon arren, eskaintza oso txikia da.

Nolakoa da pelikulak eta CD-ak alokatzen dituen bezeroa?

Urte sasoiaren arabera aldatu egiten da. Ikasturtea amaitu bezain pronto ikasle jendea izan ohi da bezero garrantzitsuenak; neguan hogeitertetik gorako jendea; asteburutan berriz, haur edota gurasoak etorri ohi dira. Izan ere, astegunetan baino asteburuetan pelikula gehiago alokatzen da. Bezeroak, Billabonakoak izateaz gain, Zizurkil, Asteasu, Aduna, Andoain

edota Inura inguruko jendea da. Musika arloan, gehien alokatzen dena bakalao edota diskoteka musika da. Horrezaz gain, kanpotar taldeen azken lanak, hau da, nobedadeak.

Nola lortzen dituzu pelikulak eta CD-ak?

CD-ak Zabaltzen enpresari erosten edo alokatzen dizkiot. Pelikulak berriz, etxe komertzial guztiak dituen eta filmeak merkaturatzeaz arduratzen den enpresa batzaitale batetik lortzen ditut. Musika eta pelikulen munduan azken berrikuntzekin egiten behar duzu lan. Bezeroak beti azken lana ikusi edota

entzun nahi du, beraz, zinta batzuk erosi eta beste batzuk alokatu egiten ditut. Kontutan hartu astero 10 pelikula berri ekartzen ditudala, eta beraz, diruzta kopuru handia behar dela horiek guztiak erosteko.

Konpetentzi handia al dago bideoklubean?

Amets bideokluba Billabonan dagoen bakarra da. Zinema aretoa izan arren, zineman pelikula bat ikusterako hila-beteak daramatza pelikula horrek bideoklubean. Canal +, bideo digitala eta gainerakoak ere ez dute arazo handirik eragingo. Bideokluba baino garestiagoak dira eta pelikulak beranduago eskaintzen dituzte. Bideoklubaren etsaierik handiena futbola da. Jendea erotuta dago futbolarekin.

**“ EUSKARAZKO
PELIKULEN ESKARIA
EGON ARREN, ESKAINTZA
OSO TXIKIA DA”**

HERCULES
Aseguruak ARGENTARIA
Anaia Kortajarena
Bulandegi bidea, 6 - Telf. eta Faxe 69 37 34
ZIZURKIL



BORDA
Jatetxea
Sorabilla auzoa z/g 20140 ANDOAIN
☎ 59 28 60 Faxe: 59 36 91

JOKOA EZ DA ERRENTA

KINIELA, PRIMITIBA, BONOLOTOA, LOTERIA, KARTAK ETA MAKINA TXANPONJALEETAN JOKATU EDOTA APOSTUAK EGITEKO AUKERA UGARIA DA GURE BAILARAN. BETERRI-AIZTONDOKO BAILARAN JOKATZEKO OHITURA NAHIKOA HANDIA DAGO. ZORIZKO JOKOETAN ASKOK JOKATZEN DUTE; BATZUEK KINIELAN BAKARRIK JOKATZEN DUTE; BESTE BATZUEK BONOLOTOAN; PRIMITIBA EDOTA LOTERIA NAHIAGO DUTENAK ERE BADIRA. JOKU HORIETAZ GAIN, BADIRA APOSTUAK EGITEA GUSTUKO DUTENAK. HELBURUA, ORDEA, ARRISKATUZ DIRUA IRABAZTEA DA.

ZORIZKO JOKOAK

Egun ezin da zorizko jokoa jokatzeko duten irudi jakin bakar bat egin.

Gazte nahiz heldu, gizon zein emakume berdina jokatzeko dute jokoa. Kiniela gehienbat gizona jokatzeko dute arren, emaku-

mezko eta gazte askok ere gustukoa duten jokoa da. Primitibako bezeroak gazteak eta mutilak izan ohi dira: beren ametsak egi bihurtuko dituzielakoan jokatzeko dute ostegun, larunbat eta igandetan. Loteria, nahiz eta garrantzitsuena Gabonetan jokatzeko dena izan, ostegunero eta larunbatero jokatu ahal da. Beraz, joku ugari izateaz gain, bakoitza egun ezberdinetan edota era ezberdinetan jokatu ahal da. Jokatzearren arrazoia ilusioa dela aipatu digu Andoaingo Basteroko loteria saltzailea den Jaione Garinek: "Jokuan jokatzeko duten ilusioagatik jokatzeko eta gazte askok ere gustukoa duten jokoa da. Primitibako bezeroak gazteak eta mutilak izan ohi dira: beren ametsak egi bihurtuko dituzielakoan jokatzeko dute ostegun, larunbat eta igandetan. Loteria, nahiz eta garrantzitsuena Gabonetan jokatzeko dena izan, ostegunero eta larunbatero jokatu ahal da. Beraz, joku ugari izateaz gain, bakoitza egun ezberdinetan edota era ezberdinetan jokatu ahal da. Jokatzearren arrazoia ilusioa dela aipatu digu Andoaingo Basteroko loteria saltzailea den Jaione Garinek: "Jokuan jokatzeko duten ilusioagatik jokatzeko



Zorizko jokoetan gastatzen da diru gehien.

dute, dirua irabazteko ilusioarekin". Horrezaz gain, batzuek maiz jokatzeko duten bitartean, beste batzuek, oso noizbehinka jokatzeko omen dute.

KARTAK

Kartetan jolasteko duten asko dira. Txapelketa ugari antolatzen dira eta horietan parte hartzen duten kopurua altua izan ohi da. Taberna, elkarte edota festetan ohizkoak izaten dira m u s txapel-

ketak. Andoaingo Buruntza tabernan, adibidez, egunero biltzen dira kartetan jokatzeko. Musean eta tutean jo-

katzen dute arratsalde osoan zehar, eta kaferen bat edo beste jokatzeko dute. Buruntza tabernako Pablok adierazi digunez kartetako afizioa handia du jendeak. "Afizio hori betidanikoa da. Beti ikusi izan dut jendea kartetan jokatzeko. Ni, esate baterako, buruntza tabernatik aurrera larunbatero txapelketa bat antolatuko asmatan nabil".

APOSTUAK

Apostuak ere ez dira falta izaten. Arrauna, futbola, txirrindularitza edota beste ki-

FRANCISCO MENDIKUTE Harategia



Kaletxiki, 15 - ☎ 59 02 58 - ANDOAIN

VIDEO CLUB



- Bideo zintak alokatzen dira
- CDak elkar trukatzeko eta saltzeko kluba.
- TV, Bideo, Hi-Fi, CAR AUDIO... konpontzen ditugu.

Txermin kalea, 21 behe BILLABONA

BENITO

HARATEGIA
URDAITEGIA

Kale Nagusia, 22 ☎ 69 11 49
Arroa Kalea, 4 ☎ 69 13 50

B I L L A B O N A

Jose Ramon
TABERNA

PINTXO EDERRAK!!

Kale Nagusia, 16 - ANDOAIN

rol bateko saioetan apostuak egiteaz gain, idi edota zaldi apostuak ere badira. Zizurkil goian Joxe Mari Tolosaren idi eta zaldiaren inguruko apostuak egin ohi

dituzte. Ildiak eta behorrak 1.100 kiloko zama 20 minututan ibili behar izaten dute apostu horietan.

LUDOPATIA:

“ARAZO HORI ONARTZEA DA SENDATZEA

LORTZEKO LEHEN PAUSUA”

MAKINA TXANPONJALEAK

Makina txanponjaleak ia taberna guztietan daude. Hamazortzi urtetik beherako gazteek debekatuta dute makina horietan jokatzea.


Emakumezko nahiz gizonetzko ugari ikusi ohi da makina horietan txanponak bota eta bota. Diru asko jan baina gutxi ematen duen makinan 5.000 edota 10.000 pezeta gastatzera ere iristen dira batzuk. Batzuek duten bizio hori gaixotasuna izatera iristen da. Izan ere, lagunekin ondo pasatzeko jokua bizio bihurtzen da batzuentzat.

LUDOPATIA

Jokuarekiko duten bizioarekin bukatzeko, arazo hori duenaz jabetu behar du lehenik ludopatak. Arazo sikiko bat da; kartertan, zorizko jokuetan, bingoan, loterian edota makina txanponjalean partida bat irabazteak baka-



Kirola da apostu askoren oinarria.



Indurialen inguruan apostu ugari egin da beti

rik du garrantzia pertsona horientzat. Lo egitea, jatea edota besteekin harremanetan jartzea ere ahaztu egiten zaie. Ludopatei laguntzeko sortu den Ekintza-Dasalud elkarteko Teresa Gascon lehendakariaren esanetan Gipuzkoako bizilagunen % 3ak jokuarekin arazoak ditu. *“Normalean familiako kideen bidez etortzen dira elkartera. Horrez gain, diru asko zor dutelako edota gaixo daudela konturatzen direlako etortzen dira laguntza eske. Arazo hori onartzea da sendatzea lortzeko lehen pausua”.* Ludopaten artean gizonezko gehiago dagoen arren, emakumezkoak ere badira. Emakumezko ludopata horiek, gainera, gizarteak oke-

rago ikusten ditu, nahiz eta denek arazo bera izan. Horregatik, gaixo guztiek berdinak direla eta tratamendu egokia behar dutela azpimarratzea dute helburu Ekintza-Dasalud elkartekoek. Horrez gain, instituzio politikoei jokuaren aurrean babesa eskaintzea eta gizarte-segurantzian gaixotasun sikiko gisa onartzea nahi du aipaturiko erakundeak. Izan ere, lagunekin ondo pasa, farre egin, edota ametssetako bat egi bihurtzeko ilusioz jokatzeko gauza bat da, baina jokorako bizitzeko edota bizitzeko ardatza jokua izatea beste kontu bat da. Jokoa ez baita beti errenta.

➔ HARPIDEDUN EGITEKO BETE EZAZU TXARTELA LEHENBAILEHEN ETA BIDAILE GURE EGOTZARA EDO DEITU 300732 TELEFONORA!

HARPIDETZA TXARTELA

Izen deiturak:

Helbidea:

Kodea: Herria:

Lanbidea: Jaiotze data:

Etxeko[☎] : Laneko[☎] :

URTE OSOKO HARPIDETZA-SARIA 2 000 PTA.

Kontu korrontearen zenbakia:


Entitatea Sukurtsala K.D. Kontu zenbakia

Tokia, data eta izenpea:

MARTIN UGALDE

Martin Ugalderekin izandako harremanak bi aldi nagusitan banatuko ditut. Lehenbizikoa, Franco hil eta

berehala, *Euskararen Liburu Zuri* eta *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* liburuak bideratzerakoan izandako harremanei dagokiena izan zen. Bigarrena, Jose



Argazkia: Ander Gileno. Egunkaria

Ariztimuño "Aitzol"en idazlan guztiak biltzen dituen liburu sorta prestatzerakoan izandakoei dagokiena. Euskararen etorkizunari begira, beste asko bezala, SIADECO Ikerketa Elkartekook ilusioz beterik geunden.

Euskaltzaindiak proiektua onartu eta Lankide Aurrezkiak finantziatzeari baiezkota eman zionean. Euskararen Liburu Zuriaren egitura eta edukia diseinatu, idazleak aurkitu, eta guztia koordinatzeko lana geure gain hartu bagenuen ere, beste hainbat osagaiez hornitzeko (Hitzaurrea, atletako sarrerak, epilogoak etabar) idazle profesional baten beharra sentitu genuen. Gauza bera gertatu zitzaigun Euskararen Azterketa Soziolinguistikokoekin. Gure taldekoen artean, lan horretarako, Martin Ugalde proposatzea aho batez onartua izan zen.

Martinek ere ilusioz beterik ekin zion lanari. Horrela ekin genion, bada, elkarlanari eta harreman-aldi sakon eta luzeari. Oso gustora eztabaidatzen genituen, ikuspuntu desberdinetatik elkar osatzen zuten aporazioak eginez. Nik, pertsonalki, asko ikasi nuen Martinengandik elkarrekin pasa genituen ordu guztietan. Bazuen, urte askotan atzerrian bizi eta bertan kazetari eta idazle lana egiteak ematen duen ikuspegi zabal eta aldi berean sakona. Berreziki, euskararen eta euskal kulturaren inguruan ikusten genituen indar eta ahuleziei buruzkoak. Gure ustez zein izan zitekeen irtenbidea ere behin baino gehiagotan eztabaidatu genuen. Ez genituen ikuspuntu berberak. Halere, askatasun osoarekin hitzegiteko

LAURENTZI ODRIUZOLA:
 "MARTINEK KAZETARITZA ETA
 LITERATURA UZTARTU DITU"

Martin Ugalderekin omenaldian hitzaldia eskaini zuen Venezuelako Notitarde egunkariko zuzendariak



58 urte.

Bidart-en jaio eta Venezuelan hazi, egun Venezuelan bizi da.

Martini esker hasi zen kazetaritza munduan.

Komunikabide askotan egin du lan:

Venezuelako Telebistan, eta hainbat egunkarietan.

Gaur egun, Notitarde egunkariko zuzendaria da

BERE BIZITZAKO HOGEITA BI URTE VENEZUELAN IGARO DITU MARTIN UGALDEK. GERRA ZIBILAREN ONDORIOZ JOAN BEHAR IZAN ZUEN VENEZUELARA, EUSKAL HERRITIK URRUNERA. EXILIOAK ERAGIN HANDIA IZAN DU MARTINENGAN, ETA EXILIOAN, VENEZUELAN, MARTIN NOLA BIZI IZAN ZEN AZALTZEKO ETORRI ZEN ANDOAINERA LAURENTZI ODRIUZOLA. GIZONAREN ARIMATIK PASATZEN DEN GUZTIAK URRATSA UZTEN DUELA ESANEZ LABURBILDU ZUEN VENEZUELAN MARTIN UGALDEK BIZI IZAN ZITUEN URTEAK.

Zure abizenak, Odriozolak, euskal kutsua du...

Bidarten jaioa izan arren, Venezuelan hazi eta hezitakoa naiz nire gurasoak bertara joan baitziren gerra garaian. Beraz, Venezuelako haurren artean eta bertako ohituren artean hazi naiz. Hala ere, euskaldunon seme-alabak garenok barrubarruan dugu gure euskaldun izaera. Ez gara euskal giroan hazi, baina hala moduzko euskaldun izaera bat badugu, identifikazio na-

hastua dugu, nonbait. Horregatik miresten ditut exilioko erosotasuna alde batera utzi eta berezko aberrira joan direnak, Martin, esate baterako.

Noiz eta nola ezagutu zenuen Martin Ugalde?

Argazki baten antzera, nire aita eta biok Martinen aitaren tailerrera -egurrezko kaxak egiten zituen Martinen aitak- joan ginen eguna dut gogoan. Martinen aita eta nire familia -nik hilabete gutxi batzuk nituen- garai

eta ia-ia barku berean joan ziren Venezuelara. Venezuelan, Caracaseko Euskal Etxera maiz joaten ginen. Ni haurra nintzen garai horretan eta jolasean ibiltzen nintzen Euskal Etxean; Martinek, ordea, neska-mutiluz osaturiko elkarte bat sortu zuen, bere kazetari senari jarraituz, aldizkari bat egiteko. Horrela ezagutu ginen, euskal etxean. -Martinek zure aukera profesionalean eragin handia izan zuen, ezta? 1960. urtean medikuntza ikasketak egiten ari nintzen. Baina ikasketekin gustura ez nonbait eta kazetaritza ikasketak hastea erabaki nuen. Nire aitak ez zuen ulertzen aldaketa horren zergatia, baina Martinek, kazetari eta euskaldun eredu paregabea Venezuelako euskaldunentzat, aita kontentzitatez lortu zuen. Martin da, beraz, ni kazetari izatearen arduraduna.

Martin Venezuelan egin zen kazetari. Kontaiguzu bere ibilbidea.
 Martin saltzaile gisa aritzen hasiera batean, baina ez zuen horretarako balio. Nire ere gauza bera gertatu zitzaidan. Ondoren, General Motors-en egin zuen lana, ongi kobratzen zuen, gainera. Bertan lan egiten ari zela, Paquito Villanuevak, *Elite* egunkariako zuzendariak, egunkarian lan egiteko aukera eman zion Martini. Erabaki zaila izan zen, diru gutxiago irabaziko zuen, baina Martinek kazetari lanetan hastea erabaki zuen. Astean bi erreportai egiten hasi zen.
 1950. urte inguruan Paquito Villanueva desagertu egin zen. Paquitoren desagertzeak eta Carlos Delgado generalaren hilketak aldaketa handiak eragin zituen Martinen bizitzan. *Elite*ko zuzendari egin zuten Martin, eta Carlos Delgadoen hilketaren

inguruan erreportai ugari idatzi zituen aldizkarian.

Martinen izaera asko nabarmentzen da bere ibilbide profesionalean, ezta?

Martin pertsona leiala, konprometitua eta oso etikoa da, besteak beste. *Elite*ren argitaratu zituen aipaturiko erreportaiak etika handiz idatzi zituen. Bera den bezalakoa izateagatik eta horrela lan egiteagatik lortu zuen kazetari prestigioa izatea. Miguel Oterok *El Nacional* egunkarian lan egiteko proposamena egin zion, baina Martinek ez zuen onartu; *Elite*ren lan egiteko konprometzua hartu baitzuen. Eta kazetari prestigioatsuen taldean sartzekotan zela, Creole Petroleum Corporation petrolio enpresako *Nosotros* hilabetekarian eta *El farol* kultur aldizkarian hasi zen lanean. *El farol* adizkarian hamabost urtez aritu zen lanean, bienbirtartean, eta denbora libre gehiago zuenez, ipuinak idatzi zituen. Izan ere, denbora behar da literatura idazteko. Bere idazteko moduak eskola egin du, gainera.

Kazetaria ala idazlea da Martin?

Martinek kazetaritza genero literario baten moduan ulertu du. Era berean, Martinen ipuinak erreportaiak dira, bere bizitzako egoeretan oinarritutako ipuinak baitira. Gainera, idazteko oso modu kontemporaneo du, bizia. Martinek kazetaritza eta literatura elkartu egin ditu. Izan ere, kazetari batek sormen lana egiten du, ikusten duen hori bera ikusten duen moduan kontatzen baitu. Martinen lana gehiago aztertu beharko litzateke, bai Venezuelaren bai Euskal Herriaren onurarako.

inolako trabarik ez nuen nik inoiz sentitu. Izan ere, Martini ikasitako beste gauza askoren artean, iritzi desberdinekin jendearekin errespetoa eta begirunea izaten jakitea aipatu beharko nuke. Esan beharrik ez dago Martinek egindako lana benetan bikaina izan zela, bai *Euskararen Liburu Zuriari* zegokionean eta zer esanik ez Euskararen Azterketa Soziolinguistikoaren laburpen gisa idatzitako *Hizkuntz Borroka Euskal Herrian* izenarekin argitaratu zen liburuari zegokionean.

Bigarren harreman aldia, askoz ere laburragoa, Jose Ariztimuño "Aitzol" zena- ren idazlan guztien argitalpena prestatzen ari zen taldearekin eta hereziki Martin Ugalderekin bizi izandakoa izan zen. Aldi horretan, Martinen eskutik, ordurarte gutxi ezagutzen nuen "Aitzol" en ezagutza egiteko aukera izan nuen. Horrek eraman ninduen «"Aitzol" euskal soziolinguistikaren aintzindari?» artikulua idaztera. Aitzol zela eta ez zela egiten genituen hitzaspertuetan nik asko ikasi nuen gerra aurreko idazle hauek sortu zuten giroaz eta buruan erabili ohi zituzten hainbat ideia eta proiektuetaz. Haiek beren asmo eta ametsak gauzatzen hasteko, bukatzen ez baitzieten utzi, izan zuten ausardia eta ke- mena ez litzagukeela gaizki etorriko, erosokeria nagusitu den une honetan gure garaiko euskara/herri- gintzak eskatzen dituen urrats berri eta proiektu ausartak bideratzen ahalegintzeko. Lozorrotik iratzarri beharrean gaude, ezin gitezke kontformismo merke eta mediokre batean etzanda gelditu. Are gutxiago agintean dauden kanpoko eta bertako Erakundeetatik irtenbidea etorri behar duela pentsatuz ezertxo ere egin gabe zain egon. Aitzol eta bere lagunek ezer garbi ikusten bazuten horixe zen, hain zuzen, geure ahalmen eskasekin bada ere eronka nagusiei erantzuten hasi beharra dagoela eta ez dagoela gehiago luzatzen uzterik. Guk ere ez ote dugu asmatuko, haiek bezala, une honetan gure hizkuntzak eta herriak bizi dituen eronka nagusiei erantzun egokiak aurkitzen?

IÑAKI LARRAÑAGA



MARTIN UGALDERI OHOREZKO OMENALDIA

Herritarrek Martinen lana eta bizitza ezagutzeko aukera izan dute



ANDOAINGO HERRIA ZORRE-TAN ZEGOEN MARTIN UGALDE IDAZLE ETA KAZETARI HANDIAREKIN.

ASPALDITIK MEREZI ZUEN OMENALDIA AZAROAREN LEHENENGO ASTEAN, SAN MARTIN BEZPERATAN, EGIN DIOTE BERE JAIOTERRIAN, ANDOAINEN. HITZALDIAK, ERAKUSKETA ETA BIDEO EMANALDIAK IZAN DIRA, BESTEAK BESTE, MARTIN UGALDE OMENTZEKO ETA BERA EZAGUTARAZTEKO ANTOLATU DITUZTEN EKI-TALDIAK. IZAN ERE, ETA EUSKALDUN EREDUGARRIA ETA IDAZLE NAHIZ KAZETARI FINA IZAN ARREN, BEHAR BAINO GUTXIAGO EZAGUTZEN DA BERE OBRA ETA BIZITZA. ANDOAINGO UDALA ETA MANUEL LARRAMENDI KULTUR BAZKUNA IZAN DIRA OHOREZKO OMENALDIA-REN ANTOLATZAILEAK.

AIURRI ALDIZKARIAREN ZENBAKI BEREZIA, ERAKUSKETA, LEHIAKETA ETA BIDEO EMANALDIAK

Urriaren 31n Jone Larrañagak burutu duen Aiurri aldizkariaren zenbaki berezia aurkeztu zuten Urigain Kultur Etxean. Aldizkariak Martinen bizitza, obra nahiz Martin ezagutu duten lagunen testigantzak biltzen ditu. Arratsalde horretan eskola arteko erreportai lehiaketaren sariak banatu ziren (ikus 4. orrialdea). Martinek berak banatu zituen sariak.

Egun berean Martini buruzko erakusketa inauguratu zen. Xabier Urdangarinen testuekin Hurbil enpresak osaturiko erakusketan Martinen argazkiak, liburuak eta jaso dituen sariak ere izan dira ikusgai. Aipatu beharreakoa da 35 obra inguru idatzi dituela Martinek. Ezin aipatu gabe utzi asteen zehar eskaini dituzten bideo emanal-



diak. Euskal Telebistak "Euskaldunon hitza" izenburuean eginiko sei elkarrizketa eskaini zituzten. Euskal Herriko eta euskal kulturako pertsonaia esanguratsueni Martinek eginiko elkarrizketak, hain zuzen.

"ERRETIRADAKO TRENA" LIBURUA, MARTINEK ESATEKO ASKO DUENAREN SEINALE

Martin Ugaldek idatzi berri duen "Erretiradako tren" liburua hilaren hiruan aurkeztu zuten Martinek berak, Iñaki Aldekoa Erein argitaletxeko ordezkariak eta Pako Aristi idazleak. Martinek idatziriko euskarazko zazpi ipuin biltzen dituen liburua Erein-ek argitaratzeak asko pozten duela esan zuen Aldekoak: "Erdaraz nahiz euskaraz ipuin ederrak idatzi ditu Martinek, eta euskal ipuingintzaren aintzidaria



da Martin". Pako Aristik liburuaren azterketa egin zuen. Bere esanetan, Martinek bihotza urratu dioten gertara asko bizi izan ditu, eta horrek, literatura idazteko balio izan dio, "galtzailearen sentimentalismoan erori gabe". Izan ere, zazpi ipuinetatik bost gerraren ingurukoak dira. Idazkera irakurterraza eta garbia erabiltzen duela aipatu zuen, eritmo bizikoa, eta "oso deitale gutxirekin pertsonaiak definitzeko gai da", gaineratu zuen. Azkenik, gerraren tentsioa etengabe agertzen dela esan zuen. Martini "Erretiradako tren" liburua bere azken liburua ote den galdetzean ezetz erantzun zuen honek, "azkenera arte idazten jarraituko dut".



EUSKARAZKO ETA ERDARAZKO IPUINGINTZA, KONPROMEZUZKO LITERATURA

Jose Angel Ascunce literatur katedraticoak eta Ugaldereen hainbat lan plazaratu dituen editoreak Martin Ugaldereen literatura aztertu zuen, erdaraz eginiko literatura batik bat. Bere bizitza eta literaturaren arteko harremana oso estua dela esan zuen, "bere obran gizatasuna eta abertzaletasuna ageri dira". Martinek bere beste aberrian, Venezuelan, egin zituen lan literario, periodistiko eta politikoak (entsaioak) aztertu zituen, baina Martin kontu kontalari gisa nabarmentzen dela esan zuen. "Venezuelan kazetari izatek idazle izatera igaro zen. Venezuelako egocera latzaren eta kulturaren berri ematen zuen bere lanetan", esan zuen Ascunce. Bere idazkeran, besteak beste, lirismoa eta teknika inpresionista erabiltzen duela aipatu zuen. Azkenik, Venezuelan bertako iraganari begira "bertako historiari begira" idazten zuela eta Euskal Herrian berriz, etorkizunari begira "geroari begira" idazten duela aipatu zuen.

Anjel Lertxundik Martinek Venezuelan lortutako ospea utzi eta Euskal Herrira etortzea eta erdoilduta zuen euskarari idazten hastea miresgarritzat jo zuen. "Bere herriarekiko leialtasun baten historia da Martinen bizitza", adierazi zuen Lertxundik. Euskal ipuin

modernoa Martin Ugaldereen "Hiltzailak" lanarekin hasi zela adierazi zuen. Azkenik, "Martinen narraitiba erreala da, erreportaitik gertu dago", gaineratu zuen idazleak.

HERRI GIZON BATEN EREDUA

Joan Mari Torrealdaik, Martin Ugaldere buruzko azterketa sakona egiten ari den Jakin taldeko burua, Ugaldereen bizitza laburtu zuen gertaerarik aipagarrienak azalduz. Gerra asko markatu duen kazetari, idazle eta euskaldunon eredu gisa definitu zuen Martin. "Agirre lehendakaria hil ondoren etorri zen Euskal Herrira, herriarentzat gauza asko egiteko asmoarekin eta bere haurrek hemen txertatzeko xedearekin". Era berean, emigrazio onaren eredu izan dela aipatu zuen, Venezuelako gizartearen integratu eta euskaldun izateari eutsi eta hori zabaltzeki ekin baitzion bertan. "He-



men berriro integratzea ez zen erraza izan, ez kultura ez politika mailan. Euskaldunok badugu kulpa handi bat bere erdal obra ez ulertzeagatik eta garaiko euskal idazlearen artean aintzat ez hartzeagatik", adierazi zuen Torrealdaik. Bukatzeko, politika edo alderdi gizona baino batasun gizona dela esan zuen, eta "alderdiari uko egingo dio, baina euskarari ez", gaineratu zuen.

ANDOAINGO SEME KUTTUN ETA LARRAMENDI BAZKUNeko OHOREZKO LEHENDAKARI

Azaroaren 9an Andoaingo seme kuttun izendatu zuen Udalak ahobatez. Kulturako eta politika munduko pertsonaia esanguratsuak bildu ziren



udalbatzan. Garbiñe Egibar kultura zinegotziak azaldu zituen Martin seme kuttun izendatzeko arrazoiak: "Eus-
kalgintzan, kazetaritzan eta idazle gisa bai hemen bai Venezuelan eginiko lanagatik egin diogu izendapena". Az-

kenik, Andoaingen egingo dituzten kale berrietako bati Martin Ugaldere izena jarriko diotela erabaki zuen udalbatzak. Martinek udalari eskerrak eman ondoren, bere irudiarekin batera udaletxean ikusgai dauden gainerako seme kuttunak omendu zituen. Bestalde, aurrez San Martin elizan ospatu zuten meza nagusia Don Eugenio Arregik eskaini zuen, eta kanpai

errepika berriz, Joxe Eizmendik. Bihotzez eskertu zien Martinek biei egin zuten lana.

Eguerdian bazkaria egin zuten Borda jatetxean Larramendi bazkunaren eskutik. Bertan, ohorezko lehendakari egin zuten Ugaldere. "XX. mendeko euskalduntasunaren eredu izateagatik". Bazkaria, Martini eskaini zioten zorion kantua eta kantua herrikoiak abestuz amaitu zuten.



LARRAUL

Larraulgo ikasleak. 1964-65

Recuerdo de mi Colegio

Zulik ezkerretik eskuinera: Ignacio Peñagarikano, Jose Gaztañeta, Antonio Elola, Martin Arizeta, Laureano Jauregi, Ignacio Usandizaga, Jose Otaegi, Jose Miguel Usandizaga, Santiago, Maria Jesus Treku, Joxepi Azkue, Kontxi Treku, Pilar Otaegi, Anttoni Peñagarikano, Kontxita Peñagarikano, Koro Usandizaga, Maria Rosa Otaegi eta Begoña Elola.

Makurtuta ezkerretik eskuinera: Jose Luis Urkola, ezezaguna, Ignacio Azkue, Joakin

Aldazabal, Juanito Campos, Jesus Jauregi, Patxi Treku, Antton Amonarriz, Dello Urdangarin, Angel Jauregi, Jabier Jauregi, Ramon Treku, Karmen Treku, Milagros Urkola, Itziar Gaztañeta, Salvadora Arizeta eta Maria Jesus Usandizaga.

Escruta ezkerretik eskuinera: Jabier Peñagarikano, Diego Campos, ezezaguna, Juan Luis Jauregi, Jose Sanchez, Sebastian, Jose Treku, Antonio Urbieta, Jose Maria Urbieta, Pedro Mari Otaegi, Dello Amonarriz, Patxi Amonarriz, Daki, Juli Sanchez, Margarita Arizeta, Mikaela Urkola, Daki eta Elena Mujika.

Larraulgo haur guztiak eskolan batera ibiltzen ziren garaiko argazkia da honako hau. Orain baino haur gehiago izaten ziren lehen Larraulen, eta irakasle batek gobernatzen zituen guztiak. Joxepi Azkuek eman digu argazkia eta informazioa.

Oharra: Etxeko ganbaran edota zapata kaxan sartuta eta ongi gordeta dituzuen argazki zaharrak Aurrin ikusi argitaratu baldin badituzue, badakizue, deitu 300732 telefonora kopia bat alera eta zuen informazio jasotzeko. Eskerrik asko.



ALBA

aseguroak

Pío Baroja, z/g behea. 20140 ANDOAIN
Fax eta Tel. 943-30 06 08 Pos. Ku. 111. 20150 Billabona

- Aseguru orokorrak, bereziki autoak. % 50a bitarteko beherapenak onartzen ditugu.

Hilero auto baten aseguru zozketatzen dugu!

**FATIMA ERRAZTI,
ZIZURKILGO LIBURUZAINA.**



Z
E
R
B
E
R
R
I

Noiz arte izango zara Zizurkilgo liburuzaina?

Gabonak arte, Arantxa Zabala liburuzain titularra lanean hasi arte. Elena Aristondo berriz, datuak informatizatzen ari den lankidea, otsail arte arituko da lanean.

Nongotarra zara?

Aretxabaletakoa naiz, baina orain Asteasun bizi naiz.

Lehenago aritu al zara liburutegi batean lanean? Non?

Bai. Arrasateko liburutegian bost urtez aritu naiz lanean.

Zer moduzko liburutegia dugu zizurkildarrok?

Oso liburutegi ona da, liburu asko dago. Arraroa da, Hego Euskal Herrian behintzat, bizilagun bakoitzeko hiru liburu dituen liburutegi bat aurkitzea. Hiru mila biztanlera ozta-ozta iristen den herri bateko liburutegiak, Zizurkilekoak, 8.000 liburutik gora ditu.

Mota askotako liburuak al daude?

Bai, zenbait gaietan hutsuncak egon arren, nahikoa kalitate oneko liburuak dira daudenak.

Zuek erosten eta ekartzen al dituzue liburuak?

Eusko Jaurlaritzak euskaraz argitaratzen diren liburuak bidaltzen dizkigu, baina nahikoa berandu: argitaratu eta urtebetera. Guk berriz, urtean argitaratzen diren liburuei jarraipena egin, liburutegian falta diren liburuen zerrenda osatu eta beharren arabera erosten ditugu liburuak. Udalak dirulaguntza ona ematen dio liburutegiari.

Ongi portatzen al gara liburutegian?


Bai. Isiltasun piska bat behar du liburutegiak, baina ez erabatekoa. Liburuekin tratatzeko lekua da liburutegia, ez ikasteko lekua soilik. Liburutegiak irakurtzaletasuna bultzatzeko xedea du.

Jende asko etortzen al da?

Haurrak eta gaztetxoak gehienbat, etxekolanak egitera edota ikastera. Bestalde, liburuak eskatzera heldu asko etortzen da, emakumeak gehienbat, baina ez dira liburutegian gelditzen.

Garaiz bueltatzen al ditugu liburuak?

Kontu hori ez da dago oso ongi kontrolatuta. Eskutitzak bidali ditugu jendeak etxean dituen liburuak lehenbailehen liburutegira ekartzeko.



Zailagoa egingo zaizue, beharbada, oraingo txoko hau zer den eta zein herrietako den asmatzea. Aldaketa handiak egin dituzte azkenaldian pareta hauek gordetzen edo babesten duten tokian. Aiurri goitik behera irakurtzeko ohitura baldin baduzue, behin baino gehiagotan irakurriko zenituzten aldaketa edo lan horien berriak. Pista moduan, Beterrri aldean baino Aiztondo aldean dagoen herri bateko txokoa dela aurreratuko dizuegu. Eta hori bai, lasaitasuna eta bakea nahi duenak herri horretara joatea besterik ez du egin behar.

Oraingoan **Ernaitzak**, Andoaingo liburudendak, eskainiko du oparia: "**Zifrak eta letrak**" izeneko **jo-kua** emango dio saritzat lehiaketan parte hartu, asmatu eta aukeratua izango den lagunari.

Beraz, badakizue erantzuna zein den argi baldin baduzue bidal ezazue eskutitza zuen izena, telefonoa eta erantzun zuzen jarriz honako helbidera:

Doktor Huizi 15-1. eskubia, Andoain.

ERNAITZA

LIBURUDENDA

Euskal eta erdal literaturako azken nobedadeak, opariak eta oleoz margotzeko gaiak.

Zumea kalea, 2 - ANDOAIN Tel. 59 24 59

ANTZERKIA

BILLABONA

Azaroak 21: Ados taldearen "Lamiak" antzez-lana. Gurea zinema aretoan gaueko 22:30etan.

SANTA CECILIA EGUNA

ANDOAIN

Azaroak 18: Naroa Enekotegi eta Aintzane Bazterretxearen opera emanaldia. Olagainen 19:30etan.

Azaroak 19: Aldaba taldearen "Aintzinako musika" emanaldia. Santa Krutz elizan arratsaldeko 19:30etan.

Azaroak 20: Javier Sanz del Rioren piano kontzertua. Olagainen arratsaldeko 19:30etan.

Azaroak 22: Musika eskolako banda eta txistularien banda. 19:00etan.

ERAKUSKETA

ANDOAIN

*Azaroak 24-*abenduak 5: Corrado Masacci artistaren txontxongilo erakusketa.

IKUSENTZUNEZKOAK

LARRAUL

Azaroak 21: "Tamirreko bihotzean" izenburuko diapositiba emanaldia. Udaltxeko azpiko aretoan gaueko 21:30etan.

IRTEERAK

BILLABONA

Azaroak 23: Aizkardi mendizale elkarteak antolatuta Ranero mendira irteera.

Azaroak 24-30: XIV. Mendizale astea

HAURRENTZAKO IRTEERAK

ANDOAIN

Azaroak 16: Andoaingo Euskalduna Mendi-goizale taldeak antolatuta Urko mendira irteera.

MUSIKA

BILLABONA

Azaroak 11: Javier Khrae abeslariaren musika emanaldia.

ZINEMA

ZIZURKIL

Azaroak 27: "Las mirindas asesinas" eta "Tesis" pelikulak eskainiko dira. Kultur Etxean arratsaldeko 19:30etan.

AIZTONDOKO I. IPUIN LEHIAKETA

Aduna, Alkiza, Asteasu, Larraul eta Zizurkilgo 3 urtetik 12 urtera bitarteko haurrek hartu dezakete parte.

Arauk

- 3, 4 eta 5 urteko haurrek marrazki bat egingo dute.
- 1. eta 2. mailakoek komiki modukoa egin beharko dute (marrazkiak testuarekin).
- 3., 4., 5. eta 6. mailakoak ipuin bat asmatu behar dute.

Sariak


Partehartzaile guztiei liburu bana oparituko zaie. Hiru maila ezberdin egingo dira eta maila bakoitzeko irabazleak liburu sorta bat izango du oparizat.

Epea

Lanak azaroaren 25rako egin beharko dira. Izena eta adina jarri eta norberak bere eskolara eraman beharko du.


Sari banaketa azaroaren 30an arratsaldeko 16:00etan Adunan egingo da. Sariak Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoez banatuko dituzte.

KOMIKIA





AMONARRIZ Iturgintza



Iturgintza
Gasa
Berogailuak
Petrolegaien hornidura

Ugalde Etxea 6. Esk.
Tfnoa. eta Faxa: 69 39 63
Mobila: 907 18 68 77
LARRAUL

fotocolor

ERREBELATUA ORDU
EAN

**ZURE
ARGAZKI
DENDA!**



JOSE IGNACIO UNANUE
JUAN BTA. ERRO 1
20.140 ANDOAIN
☎ 59 43 32



Aiurri

Egin zaitetz harpide!



**EZ BUELTA
GEHIAGORIK EMAN**



BEZEROEN ARRETARAKO ZERBITZUA

Kidegas, S.L.
GASA ETA BEROGINTZA



DOHAINIKO DEIA

900 121 775

KONPROMEZU GABEKO AURREKONTUA ESKA

SEGURURA ZATOK



Obra gabeko instalazioak,



kualifikatutako eskulanarekin,



zuen beharretara egokituaz.



Finantziaketak errazten ditugu.



Kidegas, S.L.

GASA ETA BEROGINTZA

Ama Kandida etorbidea, z/g
Industrialdea DENAC - Pab. 302
20140 ANDOAIN

*Adunak ere,
euskararen kupeletik txotx!*



ASTE KULTURALA

Bertsolariak

LARUNBATA, 29



Dantzaldia




Azaroaren
24tik 30era

H
A
T
O
R

Pailazoak

IGANDEA, 30



Barrikotea

OSTIRALA, 28



Diapositibak

EGUNERO



Hitzaldiak



Ipuin kontalaria



Hilaren 30etik aurrera,
UEMAK beste lagun bat izango du.